

ROBERTO GARCIA ARIÑO

Asegarceko intendentea



«Belokik partidua apurtzeko gaitasuna dauka»

«Finalerdietan biak antzera samar aritu dira. Beti egoten da jendea horri begira, baina pilotan horrek ez du asko balio. Egutero egin behar da pilotan, eta orain arteko egindakoak ez dauka zerikusirik finalarekin. Patxi da faborito gehienentzat, batez ere, finaletan borroka eta sufrimendu gehiago jartzeko gai izan delako. Orain arte, finaletan gehiago eman izan du Rubenek baino, baina Rubenek ongi jokatzen badu partidua apurtzeko gaitasuna dauka».

FERNANDO TAPIA

Material hautatzailea



«Sakeak eta erretoak garrantzi handia izango dute»

«Finala %50ean ikusten dut, eta nahiago dut gainera horrela esatea, ez baitut sekula pronostikoetan asmatzen. Buruz buruko partidua gehienetan bezala, sakeak izango du garrantzi handia, sakeak eta erretoak, noski. Horrelako partidua batean helburu bakarra ez da pilota bueltatzea, kontrarioari pilota kendu egin beharko zaio eta hori ez da beti erraza izaten. Horrez gain, urduritasunak izango du eragina. Iaz uste dut Beloki urduriegi irten zela».

ALBERTO BELOKI

Asegarceko pilotaria



«Anaia hor ikustea ohore bat da, baina oso gaizki pasatzen dut»

«Iaz anaiari ez zitzaizkion gauzak berak nahi zuen bezala irten. Agian berak asmatu ez zuelako, agian material egokia ateratzen asmatu ez zuelako, hori ez dakit. Aurtent material ezberdina ateratzea erabaki du horregatik, besterik gabe. Horrelako final batean, zure anaiarentzat horren egun garrantzitsua dela ikusita, oso gaizki pasatzen duzu eta ni neroni oso urduri jartzen naiz, ohore handia den arren, noski, zure familiko bat hor ikustea».

TXOKOAN

ESKU-HUSKA

Fernando Arretxe da Espainiako selekzioko hautatzaile berria

Iñaki Goikoetxea aritu da orain arte Espainiako pilota selekzioko esku-huskako arduradun gisa, eta Fernando Arretxe ordezkatzeko du hementik aurrera. Lehendik ere Nafarroako Federazioko teknifikazio zentroan ari zen Arretxe, eta Espainiako hautatzaile izendatu dute orain. Uztailaren 13an amaitzen zaio Arretxeri Asegarcerekin daukan kontratua, eta oraindik ez da argitu berrituko ote dioten.

Txapeldunen ohiko bilkura gaur Sondikan

Eskuz Banakako Txapelketako finalaren bezperan urtero egin ohi den bezala, aurtent ere txapeldun ohien bazkaria egingo da Sondikako (Bizkaia) Maipu jatetxean. Hilario Azkarate, Jesus Garcia Ariño, Iñaki Gorostiza, Julian Retegi, Ladis Galarza eta Ogeta, besteak beste, bertan izango dira.

ERREMONTEA

Gorabeheraz betetako estelarra irabazi zuen atzo hirukoak Galarretan

Estelar dotorea baina arraroa jokatu zen atzo Hernaniko Galarretan. Matxin-Altuna I.a-Etxabe hirukoak irabazi zuen Zeberio II.a eta Iriarteren kontra (39-40), gorabehera ugariren ostean. 12nakoa arte oreka, baina hortik aurrera hirukoak nagusi nabarmen (17-26, 18-31 edo 22-33). Iriarte esnatzearekin bat, ordea, 33na jarri zen estelarra, eman zioten buelta (39-35), baina ez zuten tanto gehiago egin.

JAIALDIK

ATZOKO EMAITZAK GALARRETA.

Larrea-Barrenetxea II.a 30; Urre-Gaztelu 35. Zeberio II.a-Iriarte 39; Matxin-Altuna I.a-Etxabe 40. Elizalde-Aizpuru 40; Iñigo-A. Lekunberri 24.

DEPORTIVO.

Sanchez-Ziskar I.a 40; Urkijo-Leunda 31. Insausti-Fernando 34; Urkia-Beldarrain 45. Iriando-Garrido 40; Ziskar II.a-Garma 34.

GAURKOKO PARTIDUAK ARRASATE. 22:30 (ETB1).

Capellan-Goñi III.a / Gonzalez-Lasa III.a. Galarza V.a-Eulate / Baleztena-Sukia.

TOLOSA. 22:30.

Euskal Selekzioaren eguneko jaialdia: Haritz-Taberna / Camarero II.a-Auxkin. Goñi II.a-Imaz / Berraondo-Zezeaga.



EGUNKARIA
Ladis Galarza eta Julian Retegi, 1991ko Eskuz Banakako Txapelketako finalean.

Jarraipenik eman ezinda

LADIS GALARZA AZKENA. Manomanistako bi txapel jarraian jantzi dituen azken pilotaria da Baraibarkoa. 1991 eta 1992koak Julian Retegiren kontra. Eugik lor dezake igandean, ordutik beste inork lortu ez duena

E. Telleria | DONOSTIA

Gustatzen zaio. Iristen da Manomanista eta material hautatzaileari dagozkion galderak erantzuteaz gain, bere final, txapel eta oroitzapenei buruz galdetzen diote guztiek. Diz-diz egiten diote begiek, eta prest dago beti pilotari buruz hitz egiteko. Are gehiago, EGUNKARIAREN bidez jakin duenean Eskuz Banakako Txapelketa nagusian bi txapel jarraian jantzi zituen azken pilotaria bera izan dela. «Bai? Ez nekien ezer! Gogoan ditut bai 91ko eta 92ko txapel haiek», hasten da pentsatzen.

Julian Retegiren kontra jokatu zituen bi final haiek Ladis Galarzak —jokatu dituen beste bostak ere bai—. 22-15 irabazi zuen 1991koa, eta 22-12 1992koa. Irabazi dituen bakarrak. Hurrengo urtean (1993),

Retegirekin aritu zen berriro eta galdu egin zuen (19-22). Bi pilotari horiek jokaturako azken finala izan zen hori. Julian Retegiren azken txapela. Horatik aurrera, ez du beste inork bi txapel jarraian jantzea lortu. Fernando Arretxe (1994), Ruben Beloki (1995), Patxi Eugi (1996), Fernando Arretxe (1997), Ruben Beloki (1998), eta banandutako txapelketa (1999), Beloki eta Eugi txapeldunekin, baina txapeldun bateraturik gabe. Iaz Eugi nagusitu ostean, igandean lortu dezake Agoizkoak bere bigarren txapela jarraian.

Galarza III.a: «Bi final haietan joko askorekin nengoen»

Ongi akordatzeko da Ladis Galarza jarraian lortu zituen bi txapel haietaz. «Joko askorekin harrapatu ninduen txapelketak bi urte haietan. Bestela

ere urte oso onak egin nituen, eta finalerara primeran iritsi nintzen. Hori oso garrantzitsua izaten pilotariarentzat. Bajualdiak izan ditzakezu, baina Manomanistak une onean harrapatu behar zaitu».

Behin eta berriz gogorazten dizkiote Galarzari Retegiren kontrako finalak. Eugiren eta Belokiren artekoak bide beretik joan daitezkeela onartzen du. «Guk urte askotan jokatu genituen finalak elkarren kontra, eta bi hauen artekoak ere aspalditik du usain hori. Nik uste dut baietz. Urte batzuetarako lehia badute. Zaila izango da hor goitik kentzea».

Igandeko finala, hori bai, «oso irekia» izango dela dio. «Eugi pilotari bezala asentatu egin da, eta jendeak horregatik dio bera dela faborito. Beloki, ordea, pilotari handia da eta saketik min egin dezake».



AMAIA ZABALO
Ruben Beloki eta Patxi Eugi, elkarri bostekoa emanda, atzo, Donostiako Atano III.lean.

jaialdiko bigarren partidua izatearekin, ordea, ez datorrela bat: «Horrelako final handi batek jaialdiko aurreneko partidua izan behar du beti. Ezin dugu gure aurreko partiduen zain egon. Hor bestelako interesak daude».

Zentzu berean mintzatu zen Ruben Beloki ere: «Finalak ez luke bigarren partidua izan behar. Aurrenekoa izatea da egokiena. Gertatu liteke gure aurrekoak ordu eta erdian aritzea pilotan, baina telebista kontuentatik-eta izango da eta onartu egin beharko». Pilotan «gustura» ari dela zioen Belokik. Banakako finala galdu egin zuela, baina urtea ongi doala eta «biri-bildu» egin nahi duela. Eta finalera begira zera: «Eugiren kontra aire sartzea zure buruaz beste egitea da. Botera jokatzeak entrenatu naiz oraingoa».